



16/2003 GOMENDIOA, MAIATZAREN 27KOA, BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOARI EGINA, KEXAGILEARI 64,48 EUROKO KOPURUA ITZUL DIEZAION -BERE GARAIAN GAINKARGU GISA ORDAINDUA-, PARTZUERGOAK EZIN BAITU EGIAZTATU PREMIAMENDU PROBIDENTZIA JAKINARAZI ZUENIK. ETA, OROBAT, PREMIAMENDU PROBIDENTZIA GUZTIAK HEMENDIK AURRERA JASO IZANAREN ADIERAZPENA DUTEN POSTA ZIURTATUAREN BIDEZ JAKINARAZ DITZAN, HORRELA BETEKO BAITITU AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAK -HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOARI ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKOAK- 59. ARTIKULUTIK 61.ERA BITARTEAN EZARRITAKO XEDAPENAK.

Aurrekariak

1. Getxoko biztanle baten kexa-idazkia jaso genuen erakunde honetan. Ez zegoen konforme Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak ur kontsumoagatik bidalitako ordainagiriaren alderdi batzuekin, izan ere, Getxoko udalari, Kontsumitzaileen Bulegoari eta Partzuergoari berari igorri zizkien azalpen-eskaerei ez zitzairen, antza, erantzun egokirik eman. Zehazki, kexagileak zioenez, erakunde horrek bidalitako ordainagiriak ez dira batere argiak, batik bat aztertutako ordainagiri batzuetan ez delako ezertxo ere adierazten fakturatutako aldiaren hasierako edo bukaerako irakurketaz. Halaber, kexagilea ez zegoen ados ezartzen diren gainkarguekin -gehiegizkoak, bere ustez-, ezarritako epean ordainagiri bat ordaintzen ez den kasuetan.
2. Kexagileak ekarritako ordainagiriak aztertu eta gero, fakturazio-aldi batzuetan uraren, zaborren eta estolderiaren fakturei ezarritako % 20ko gainkarguan jarri genuen gure arreta, batez ere. Alderdi hori argitzearen, Partzuergoari informazio zehatza eskatu genion, premiamendu gainkargua erabiltzerakoan zein izapide burutu zituen jakiteko. Era berean, zordunari premiamendu probidentzia jakinarazi izanaren ziurtagiria eskatu genion, agiri hori nahitaezkoa delako, eta, gainera, premiamendu prozedura hasten duena.
3. Gure eskaerari erantzunez, Ur Partzuergoak agiri hori ez zeukala onartu zuen eta, eskatutako agiria bidali beharrean, zenbait pertsonaren -horien artean, kexagilea- zerrenda bat bidali zigun, "*Relación de cartas a certificar de Bilbao*" izenburupean. Orrialde bakoitzean zigilu bat estanpatuta ageri zen, data batekin eta "*ziurtatua*" hitzarekin.



Era berean, Ur Partzuergoak adierazi zigun premiamendu probidentziak beti posta ziurtatuaren bidez jakinarazten dituela, baina kasu berezietan bakarrik exijitzen duela jaso izanaren agiria, esate baterako, zorra oso handia denean edo erabiltzaile bakar batek ordaindu gabeko hainbat faktura dituenen. Erantzun horretan berean, Partzuergoak jakinarazi zigun horixe dela, bere ustez, prozedura horrek duen akats bakarra, eta jakinarazpenak indarreko araudia zorrozki betez egiteko prest agertu zen. Azkenik, hauxe gaineratu zuen, hitzez hitz: *"ello implica un mayor coste que, ineludiblemente, deberá ser repercutido a los usuarios afectados"*.

Gogoetak

1. 3/1995 Foru Arauak araupetzen ditu Bizkaia Lurralde Historikoko udalez gaindiko eremuko erakundeak. Foru arau horrek partzuergoei ematen dizkien ahalmenen artean, derrigorrez betearazteko ahalmena nabarmenduko dugu, aztertzen ari garen kasuarekin zerikusia du eta.

Horrela, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren eremuko herritarrei hornidura eta saneamendu zerbitzuak emateagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalak garbi azaltzen du, 37. artikuluan, ahalmen hori nola erabili: borondatezko epean ordaindu ezean, betearazteko epea hasiko dela dio, eta premiamendu bidezko ordainaraztea.

2. Hala ere, administrazioak bakarrik duen eskubide hori gauzatzekoan, prozedurazko arau zorrotzak bete behar dira; arauok dira herritarrek beren alde duten beharrezko bermea, administrazioaren hertsapenezko agintearen kontra. Horrela, premiamendu probidentziaren jakinarazpenari dagokionez, Zerga Bilketako Araudiak adierazten du -99. artikuluan- jakinarazpen hori azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikulutik 61era bitartean ezarritakoaren arabera egingo dela. Jakina, 30/1992 Legea Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa da (APEL, hemendik aurrera), eta zera agintzen du hitzez hitz: *"Jakinarazpenak egiteko edozein bide erabil daiteke, betiere interesdunak edo bere ordezkariak hartu izanaren agiria jasota geratzen bada, eta jakinarazitako egintza zein den, noizkoa den eta zer dioen ere jasota geratzen bada. Egindako jakinarazpenaren egiaztagiria espedienteari atxikiko zaio"* (APEL, 59.1 artikulua).



Begi-bistakoa dirudi jaso izanaren agiria duen ziurtatze-sistema bat erabili behar dela posta bidezko jakinarazpena egiteko, izan ere, beste modu batean egindako jakinarazpenak ez du betetzen APELen 59.1 artikuluan ezarritako baldintza (idatziz jartzea jakinarazpena jaso dela, zein egunetakoa den, nork jaso duen eta zer egintza jakinarazi den), eta, halaber, ez du jakinarazpena burutu izanaren ziurtagiria espedientearen sartzeko aukerarik ematen.

3. Jakinarazpenei dagozkien legezko eta arauzko betekizunak ulertu eta exijitzeko zorrotasuna dela-eta, honako hau dio Auzitegi Gorenak (1998ko otsailaren 11ko Epaian): *"no tiene su razón de ser en un exagerado formalismo, sino en constituir una pieza clave para la proscripción de la indefensión y la garantía del derecho a la tutela judicial efectiva que consagra el artículo 24 de la Constitución..."*
4. Ur Partzuergoak ezin du egiaztatu kexagileari premiamendu probidentzia jakinarazi zionik, ez baitauka jaso izanaren agiririk; hori irregulartasun nabarmena da, eta, gure ustez, kexagileari premiamendu gainkargu gisa bidegabe kobratu zizkieten diru-kopuruak itzuliz konpondu behar da. Dauzkagun datuen arabera, guztira 64,48 euro dira (1999-02-16 eta 1999-06-04 bitarteko aldiari dagozkion ordainagiritako datuei begira).
5. Premiamendu probidentziak posta ziurtatuaren bidez jakinarazteko prozedura orokortzeak dakarren kostuari buruz, gogorarazi behar dugu gure legerian ez dagoela inolako xedapenik kostu hori administratuaren edo, kasu honetan, zerbitzu-erabiltzailearen gain utz daitekeela dioenik.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

16/2003 GOMENDIOA, maiatzaren 27koa, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoari egina

Itzul diezaiola (...) jaunari 64,48 euroko kopurua -bere garaian gainkargu gisa ordaindua-, partzuergoak ezin baitu egiaztatu premiamendu probidentzia jakinarazi zuenik. Orobat, hemendik aurrera, premiamendu probidentzia guztiak jaso izanaren adierazpena duten posta ziurtatuaren bidez jakinaraz ditzala, horrela beteko baititu azaroaren 26ko 30/1992 legeak -herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoak- 59. artikulutik 61.era bitartean ezarritako xedapenak.